



## Eskualdeko segalariek ezin izan dute Lapazaranen aurka

**SEGA** ▶ Bizkaitarra nagusitu zen kilotan, herenegun Oartzunen, Euskal Herriko Segalari Txapelketan ▶ 6



Gabirondo, Goikoebxa, Urki eta Lapazaran, herenegun, Oartzungo Pikoketako zelaietan. ASIER IMAZ



E. EZEIZA/A. OTEZABAL



## Zaldi lasterketak eta herri kirolek, harrera ona

**TOLOSALDEA** ▶ Eguraldiak lagundu zuen herenegun, bai Albizturren bai eta Asteasun ere, santamañetako jaietan ▶ 5

**TOLOSALDEA** ▶

Zazpi urtez,  
txokoz txoko  
erromeria  
zabalduz

Nekin taldeak agur  
esatea erabaki du ▶ 4



**NEREA**

1962-2007

Lentzeria

Gizonezko eta emakumezkoentzat

**LIKIDAZIOA**  
(Jubilazioagatik)  
prezio ezin hobek!

Pijamak • Kamisoiak • Kamisetak  
Batoiak • Pikardiak • Tangak • Bodiak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30



TOLOSA ▶ KIROLAK

# Ostiralean erabakiko da bikoteen arteko 39. Paleta Txapelketa

Atzo jokatu zituzten final-laurdenetako lau partidak, eta bihar izango dira finalerdiak Berazubiko pilotalekuan

## ERREDAKZIOA

Tolosa CFk antolatutako 39. Paleta Txapelketa ari da amaiera iristen, izan ere, atzo jokatu zituzten final-laurdenetan erabaki zen finalerdi zein bikotek jokatuko duten, eta bihar jaikingo da ostiraleko finalean nortzuk ariko diren aurtengo txapelketa irabazteko lehian.

Atzo, lau partida jokatu zituzten arratsaldean, eta beraz, lau bikote izango dira finalerdiak jokatu beharko dutenak bihar arratsaldean. Lau horietatik bi hoberenak izango dira



Atzoko final-laurdenetako une bat, Berazubi pilotalekuan. I. TERRADILLOS

## EMAITZAK ▶

Hauek dira pasa den astean Berazubiko pilotalekuan jokatu zituzten partidetak emaitzak:

## ASTELEHENA, HILAK 16

Taben-Aierdi/Goiburua-Etxarri	30-20
Landa-Galarra/Xanet-Trinkete	30-29

## ASTEARTEA, HILAK 17

Zabaleta-Urdanpilleta/Balardi-Agirre	30-19
Apeztegia-Maiza/Xanet-Trinkete	30-10

## ASTEZKENA, HILAK 18

Taben-Aierdi/Sarasua-Joseba	30-25
Apeztegia-Maiza/Peio-Ion	30-23
Sarasua-Joseba/Goiburua-Etxarri	30-23

## OSTEGUNA, HILAK 19

Artola-Txepe/Otermin-Gotia	13-30
Zabaleta-Urdanpilleta/Taben-Aierdi	27-30
Goiburua-Etxarri/Balardi-Agirre	26-30

final handirako pasea lortuko dutenak.

Pasa den urteko txapelketari dagokionez, Lontxo eta Nazabal izan ziren txapelidunak.

VILLABONA ▶

## Zikiro jateko txartelak salgai bihar arte

Euskal Jaiaren ekitaldien artean bigarren urtez jarraian Zikiro Jatea ospatuko dute hilaren 28an Villabonako plazan. Txartelak 20 eurotan daude salgai ohiko lekuetan, eta eskuratzeko azken eguna bihar izango da.

TOLOSA ▶

## 'La casa de mi padre' filmaren grabaketa

La casa de mi padre filmaren grabaketa San Frantzisko kalearen bukaeran eta Araba etorbidearen hasieran egingo dute gaur, beraz, zirkulazioa desbideratu egingo dute bi norabideetan, 12:00etatik 21:00etara bitartean. Bihar, ere San Frantzisko pasealekua itxita egingo da ibilgailuentzako, 15:00etatik 24:00etara grabaketa dela- eta.

GUTUN@K ▶

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Lotsa eta nazka Tolosako udaletxean

Ekainaren 20an, ostirala, eta goizeko zortzietan, udal osoko bilkura egin zuten; bertan, Ezker Batua-Aralarren kontrako botoarekin eta Batasuna kontuan hartu gabe liberazio eta soldata hauek erabaki dituzte: Udal Gobernuak, EAJ-EA, lau liberazio eta 250.000 euro gordin (44 milioi pezeta) ditu PSE-EEk 18.000 euro (jiru milioi) eta liberazio erdia.

Errealitate hone aurrean herriar gisa nire haserre azaldu nahi dut.

-Lau liberazio erabat desproporzionatuta dago. Aurreko legegadina bi, Antton Izagirreren garaian bat eta erdi, Jose Gurrutxagarenean bi. Zein da arazoa kopuru hau bi-koizteko herria bera denean?

-Soldata izugarriak dira, ia hamar milioi gordin pertsona-ko liberazio osoetan.

-Esango didazue lanaren araberakoa dela, baina barkatu, ezagutzen dut lan hori, neu izan bainaiz Udal Gobernuak eta bi komisioko buru, eta inondik inora ezin da halako diruztarik justifikatu.

-Formari dagokionez, halako lotsagabekeria ezkutuan egin duzue, goizeko zortzietan, isil-

pean. Ni izan naiz, kazetariak salbu, publiko bakarra eta osoko bilkura berezia zenez, ezin gen ez galderarik egin. Ostiralean ez zeuden bandoak herri osoan, alajaina!

-PSE-EE eta PP azaldu dira, batarentzat dirua (18.000 euro) eta kirol batzordea eta PPrentzat lur azpiko aparkalekuen kudeaketa.

Burutazio orokor batzuk datozkit burura:

-Partidokrazia sistema honetan politikoa profesionalen kasta sortu da, badakigu, baina herrian bertan ikusteak asaldatzen gaitu.

-Bizitzaren ironia, hauek azkenean Jose Gurrutxaga ona egin dute, Murphyren legea betetzen da.

-Errealitateak fikzioa gainditzen du: La Pollaren «Como primer punto del día actualizarémos nuestros sueldos... y como segundo punto, bajaremos el de los demás».

BENJA ARREGI USABIAGA (EH-KO ZINEGOTZI OHIA) ▶ TOLOSA

## «Egunon!», «DNI o Pasaporte»

Badakit eskualdeko egunkaria zaretela eta gutun hau irakurtzen duzuenengan agian pentsatuko duzue hau ez dela eskualdeko gaia. Baina, azken batean, eskualde honetan bizi

garen guztioi lehenago edo beranduago pasako zaigu niri joan den astean pasa zitzaidana eta salatze modukoa iruditzen zaidana.

Oporrak direla eta, kanporanoa. Horretarako pasaporte atera behar dut. Honaino guztia ondo doala dirudi, ezta? Arazoa Donostian Espainiako Barne Ministerioak duen egoitzara joan nintzenean hasiko da. 09:00etan irekitzen dute bulegoa, 14:00ak arte. Fetxa hauetan jende asko joaten denaren jakitun eta bost ordu baino ez dutela lan egiten kontuan hartuta, ordubete lehenago ilaran jarri naiz. Espainiako Polizia nazional bat tiketak eraman hasiko da. Jendea ia-ia errepideraino heltzen zen ilara ikusita urduri jarri da eta polizia honi galdetu diote «barkatu, zer abiadura darama ilarak?» Eta hark, oso gogo txarrez, «Eso depende de las mesas» erantzuten du, buelta eman eta «pesaus de la ...» esaten duen bitartean. Noski, erdara hutsean. Azkenean nire txanda heldu da, 09:20ak direnean. Aurpegi txarreko emakume bat egokitu zait mahaian bestaldean. «Egunon» esan diot. «DNI o Pasaporte», erantzuten dit hark. Argi dago berak ere euskaraz hitzik ez duela egiten. Beraz, Euskal Herriari ofiziala den hizkuntza ez du ezagutzen, lanpostu publi-

ko batean lan egiteko... Badi-rudi, hala ere, berak ni lotsarazi nahi nauela euskaraz egitea-gatik. Argazkiak eta beharrezko dokumentazioa aurkezten ondoren «dieciseis con noventa» esan dit. Nik 50 eurokoa eman diot eta haren haserre aurpegia areagotuz doala konturatu naiz. «No tienes cambios?» eta nik ezetz... Alboan duen kaxara makurtu da kanbioen bila eta jaitsi den bitartean ahopeka zerbait esan dit, baina ez diot ezertxo ere ulertu. «Eh?» nik. «Que para recoger, a partir del martes»... Nire ordeze ea batenbat joan daitekeen galdetu diot azkenik eta mahai gainean paper bat utziz «con la autorizacion» esan dit, aurpegiaren haserre aldatu gabe. «09:20ean umore horrekin baldin badago nola artatuko du 13:45ean sartzen dena?» pentsatuz atera naiz handik.

Euskal herritar bezala eta pertsona naizen bezala nire eskubideak urratuak izan dira iruditzen zait, batetik, lanpostu publiko bat betetzen ari den pertsonak ez nauelako euskaraz artatu eta bestetik aurpegi txarrak jasan behar izan ditudalako. Denak ez dira horrela izango noski, baina niri okerrera egokitu al zitzaidan?... Badaezpada prestatuta joan...

ARANTZA MUÑOZ ▶ TOLOSA

TELEFONOAK ▶

## Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amarozko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- ▶ **Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitza autobus.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ **Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrerandi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

LARRAUL ▶ GIZARTEA

# Herritarrek herritarrentzako

Festei begira, zenbait larrauldarrek txaranga osatu eta beste batzuk buruhandiak konpondu dituzte

IMANOL GARCIA

**D**atorren astean Larraulen sanestebanak ospatuko dituzte. Aurtin zenbait berrikuntza izango dituzte herritarrek. Alde batetik, herri afaria catering enpresa bati eskatuta izango dute. Lan guxtiago izango dute beraz antolaketa lanetan aritzen direnek. Beste berrikuntzek, baina, lan gehiago eman diete herritarrei. Zenbait larrauldarren ekimenez, herritarren txaranga bat ongongo da festak alaitzen eta ondoan herritarrek bereaiek konpondutako buruhandiak izango dituzte.

Iazko festak bukatu eta gero sortu zen turuten txaranga bat sortzeko ideia. Horrela diote Aitor Atxega, Kristina Garde eta Olga Villak, ekimenaren bultzatzaileetako batzuk. «Legazpiko auzo batean eta ikusita nuen horrelako txaranga bat eta ideia ona iruditu zitzaidan», dio Gardek. Festetan kaleko giroa sortu nahi zuten, baina txaranga bat ekartzeko nahiko aurrekontua ez zegoenez, bat sortzea erabaki zuten.

«Pello Joxeperen jaitziera pobrea izaten da, giro pixkat falta zaio», dio Villak, eta ekimen horrekin txupinazoari beste saltsa bat jarri nahi diote. Festen hasieraz gain beste egunetan ere jo nahi dute eta herri-gunean zehar batetik bestera ibiltzeko asmoa dute.

Neguan zehar ideia garatzen, jendearen artean komentatzen eta kantuak aukeratzen joan ziren eta Aste Santuaren ondoren ekin zioten entseguiei. Abesti herrikoiak aukeratu zituzte. *Gora ta gora beti* eta *Geuria da ta geuria da*, esaterako, eta beste abesti ezagunak ere, *Anselma*, *Adelita*, *Guantanamo* bezalakoak.

Atxegak horrelako ideia bat herrian «giroa sortzeko» helburuarekin sortu dela nabarmentzen du. «Musika ez daktienentzat aproposa da horrelako txaranga bat», dio. Hain justu, turutarekin abestia kantatu egiten da eta hori egiteko ez da instrumentu bat ikasi beharrik izaten, doinua jakitearekin nahikoa izaten da.

Turutez aparte, badira ere beste instrumentuak. Atxegak —zuzendari lanetan aritzen da— eta Gardek, esaterako, gitarra jotzen dute eta badago beste gitarjole bat, baxua, bonboa, txindata, saxofoia, tronpetea... «Entseguak nahiko ondo doaz», dio Atxegak. Hasiera



Txarangan parte hartu behar duten herritarrek entsegu bat egiten aurreko astean Kultur Etxean. I. GARCIA

batean helduei zuzendutako ekimena zen, baina azkenean haurrek ere parte hartu dute.

Txarangak gurti bat aterako du berarekin, Karlos Irazuk egina. Izan ere, txarangaren izena Gurti Soinua izango da. Gurdian bafleak emango dituzte instrumentuentzako eta espero dute entzunlegoa dantzatzera animatzea. Atxegak, Gardek eta Villak bat egiten dute esatean «ondo pasatzeko aitzakia» dela txaranga eta herritarrengandik sortu dela ekimena azpimarratzen dute.

## Eskulanean

Txarangarekin batera buruhandiak aterako dira lehengo aldiz Larraulen. Hauen berezitasuna herritarrek bereaiek egindakoak direla da. Asteasuko Udalarenak ziren, baina materiala botatzeko asmoa zuten, nahiko txikituta baitzegoen. Larrauldarrek eskatu egin zituzten eta Olivia Sanchez herritarren gidaritzapean —eskulanean denda du Tolosan eta hainbat ikastaro ematen ditu eskulanean inguruan— dozena bat guraso eta haur aritu dira buruhandiak berritzen.

Sanchezek dioenez, «oso gaizki zeuden. Buruhandietako bat erditik puskatuta zegoen». Baina berritzeari ekin zioten eta oso txukun gelditu dira. «Kartoiarekin, kartoi kolarekin eta matxe paperarekin sendotu genituen», dio Sanchezek. «Ondoren txuritu genituen eta gero margotu. Hasieran ziren



Olivia Sanchez eta lanean aritu diren hainbat haur buruhandiek. I. GARCIA

bezala utzi genituen, zenbait ikutu berrirekin».

Bost dira orotara osatu diren buruhandiak: suhiltzailea, erizaina, apaiz modernoa, base-ritarra eta deabrua. Hiru hilabete inguru aritu dira konponketak egiten. «Aipatzekoa da gurasoek soinekoak egin ditzutela haurrentzako», zehazten du Sanchezek. Haurrak irrikitan omen daude abuztuaren 2a noiz iritsi buruhandiak jantzi eta kalera ateratzeko. Festetan egunero ateratzeko asmoa dute.

Ekimen honek, txarangakoa bezala, herritarrei biltzeko aukera eman die eta batera

gauzak egiteko. «Hori oso abegarria da», nabarmentzen du Sanchezek. Hain justu, Sanchezek berak bere bikotearen laguntzaz Katillutxulo elkartearen San Joan suaren inguruko ar-

gazkiak jarri ditu. «Elkarteari beste ikutu bat ematen dio. Festetan ere argazkiak ateratzeko asmoa dugu eta ondoren erakusketa berritzeko», dio Sanchezek.

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Leihoak eta atea.** Oso egoera onean dauden poliuretanozko leihoak eta egurrezko atea. 678 63 65 21.

### GALDUTAKOAK

**Zakurrak.** Bi setter galdu zaizkit

Zizurkilgo mendietan. Deitu 629 49 41 27 zenbakira.

### LANA

**Zerbitzaria.** Autodun zerbitzaria behar da, lanaldi erdi edo osorako. Deitu 943 670 928 telefono zenbakira.



MUSIKA ▶

# Agur esateko unea

Musika egin nahi eta lokal batean bildu ziren batxillergoko ikasleen garaiak atzean geratu dira eta Nekin taldeak agur esatea erabaki du; zazpi urtez aritu dira txokoz txoko berain erronomia zabalduz

IÑIGO ASENSIO

**A**gur esatea zein zaila den agertzea gehiegitxo izango da. Gauzei amaiera jartzeak beti suposatzen du sentimendu kontrajarririk baina betidanik amaiera onartua zuen taldearen moduan mintzo dira Nekin musika taldeko partaideak. Zazpi urtetan hamaika plaza zein txokotan aritu dira, hurbildu den orori betikotasunetik aldentzen zen taldearen arrastoa utziz. Eta auskalo zergatik. Lan nekeza izango da Nekin taldea berezia zergatik izan den azaltzea. Ez dute oinarrian ezer berririk egin, nahiz eta hasi zirenean «ordurarteko dantzaldi tradizionalaz haratago modernoagoa» egiten saiatu ziren. Ez dute entsegu lokalean ordu mordo pasatu ezta 7 urte hauetan errepertorioaren berritzean lan gehiegi egin ere. «Ia hasi gineneko errepertorio berarekin jarraitzen dugu, bakoitzak bere gauzak izan ditu buruan, eta behar baino gutxiago elkartu gara gure kontzertuak prestatzeko», onartzen du Iñaki Larrea taldeko bateria-joleak. Halere, izan dute ukalezina den gertutasuna eszenatoki gainean. Beti entzuten den adiskidetasun topikotik haratago, benetazko lagunak dira Josune Aranburu, Aloña Otermin, Nahikari Iturbe eta Patxi Azpiroz eta Iñaki Larrea. Musika lanbide ez izateak ere eraginik izan du zentzu horretan. «Kontzertu asko izan dira urte hauetan jo ez ditugunak. Norbaitek deitu eta ezin genuela esan behar izan dugu maiz. Taldean 5 gara eta bakoitzak bere beharrak zituen zaila zen eskaerari erantzutea. Norbaitek ezin bazuen ez guren jotzen. Taldea ez zen gure lanbidea, hainbat dantzaldi taldetan gertatu izan den bezala, eta horrek asko aldatzen ditu gauzak; onerako edo txarrerako», aipatzen du Patxi Azpiroz gitarra-joleak.

Anoetako Gaztetxean estreinatuta zirenetik Hego Euskal Herri osoa zeharkatu dute euren musikarekin, baina istorio guztiek bezala honek ere amaiera behar zuen; aspalditik onarturiko amaiera. «Ezin uka deza-kegu guretzat azken abestia jotzea ez dela erraza izango, baina beti izan dugu garbi izateko unea iritsiko zela, eta hau da unea», dio Larreak. «Pasarte asko geratu dira bidean. Gura-



Iñaki Larrea, Josune Aranburu, Aloña Otermin, Nahikari Iturbe eta Patxi Azpiroz taldekideak. HITZA

## Gaur azken kontzertua Villabonan

Villabonako plaza aukeratu du Nekin taldeak agur esateko. Beraien azken bi kontzertuak aste honetan izango dira. Larunbatean Santutxun izan ziren jotzen. «Villabonan agur esateko prestatu xamar iritsi nahi genuen eta Santutxu aukera ona zen aspaldian jo gabe egon ondoren, errepertorioa lantzeko; horrexegatik onartu genuen» azaldu du Patxi Azpirozek. «Aldi berean, taldekoek asteburu pasa egiteko aukera paregabea ikusi genuen, eta horrek ere pisua izan du. Azkenean kontzertu borobila izan da, plaza jendez gainezka zegoen eta ikaragarria izan zen gure azkenurreko zuzenekoan hainbeste jende ikustea», dio Larreak.

Anoetako Gaztetxean izan zuten lehen kontzertua, orduz geroztik euren bilgune izan den herrian, eta Villabona izan da agurtzeko aukeraturiko tokia, beraiantzat «plaza berezia» izan delako eta «agurtzeko leku aproposa» zela pentsatu dutelako. Lagunartean, senideen artean, urte hauetan beraiekin plazetan ibili dire-



Gorazde hiran, Bosniako bidaiako zuzeneko batean. HITZA

nek inguratuta izango dira berriro, hainbatetan jotzen ikusi dituen plazan. «Lau Teilatu azken aldiz jotzen ikustea gogorra izango da dudarik gabe. Naturaltasunez erabakitako agurra izateak ez du esan nahi hunkigarria izango ez denik, baina hori ere pasako da eta ondoren parranda botako dugu berriz ere elkarrekin»,

dio Larreak. Azken aldiz erantzun dugu bere erronomia-rekin hain zuzeneko berezia egin duen taldea. *Gora Herria, Zuentzat, Lau Teilatu, Errespetua, Irudimenaren Orratzetik* eta urte hauetan errepertorioaren oinarri izan diren hainbat kantuekin amaituko da Nekinen bidea; gaueko hamaiketan Villabonako Plazan.

soak handik hona gu mugitzen ibili behar zutenean dena desberdina zen. 17 urterekin jotzeko gogo biziz hasi ginen, eta oraindik eszenatokira igotzea gustuko dugu, baina azkenaldian bakoitzaren bizitza asko aldatu da, ikasketak amaitu, lanean hasi... Garai bati amaiera emateko unea zen eta horrela erabaki dugu», gaineratu du Iñaki Larreak.

### Azken uda Bosnian

Une asko dira taldeak bizitakoak, eta mementu askorekin geratuko lirarekin arren, ados dira Bosnian pasatuko uda azpimarratzean. «Joandako udan Sos Balkanes-ek Nazioarteko Adiskidetasunaren Jaialdian parte hartzea eskaini zigun. Eta gehiegi pentsatu gabe autobusean sartu eta bertara joan ginen. Talde bezala esperientzia itzela izan zen, baina hori baino gehiago, banaka bizitako esperientzia izan zen azkenean. Hango egoerak asko eragin zigun eta taldea hainbat unetan bigarren mailako gauza izan zen», onartzen du Azpirozek. Hasiera batean kontzertu bakarra jo behar zuten arren, behin bertara iritsita beste kontzertu pare bat lortzen saiatu ziren. «Tabernaz taberna pasa genituen egunak, elkarrekin ulertzetik ez genuela ibili ginen handik hona. Taberna txiki batean eta ordu txar batean, taberna hutsik zegoela, hasi ginen jotzen. Hemendik gurekin autobusean etorritako jendea agertzen hasi zen, baita bertako jendea ere... Konturatzerako etxetik 3.000 kilometrotara ginen, taberna oso bat *Gora Herria* dantzatuazten; oroitzeko moduko gauzak dira», azpimarratzen du Larreak. Horregatik, hain zuzen ere, oroimenak pisatzen duelako, ez zaie erraza izango azkeneko eszenatokira elkarrekin igotzea, baina naturaltasunez hartzen dute. «Atzera bagiratzetan une konkretuak gogoratzea baino, 7 urteetan bizitu ditugun egoera ezberdinak datozkigu burura. 17 urtetatik hona gauza asko gertatu zaizkigu eta hemendik aurrera egoera ezberdin bat dator. Istoria guztiek amaiera dute, eta hau da Nekin taldearen amaiera naturala; nahi genuenean ekin genion jotzeari eta nahi dugunean uztea erabaki dugu», dio Azpirozek.

SANTAMAÑAK ▶

# Zaldi lasterketak eta herri kirolak jende asko erakarri du

Eguraldiak lagundu zuen herenegun, bai Albizturren eta baita Asteasun ere

## NEREA URBIZU

Santamañetako jaiek eman dute aurten eman beharreko guztia. Azken egunean eguraldiak lagundu du, eta zapore ona utzi du Asteasun eta Albizturko Santa Marina auzoan. Bietan kirola izan zen protagonista herenegun.

Albizturko Santa Marina auzoan jende asko bildu zen herri kirol saioak ikusteko. «Giro ederra» izan zen bertan, eta kirolarien saioak ikustekoak izan ziren. Bazkaltzeko jende asko bildu zen jatetxean. Arratsaldean, bi minutuko altxaldiak egin zituzten, bai Aimar Irigoienek eta baita Mari Jose Sardonek ere.

Aizkorarekin aritu ziren ondoren Jon Rekondo eta Unai Otaño. Eguzkiak berotu zuen eta izerdi batzuk bota behar izan zituzten. Herriko gazteen parte-hartzea izan zen ondoren, eta sasi-tranpak egiteko aukerak izan ziren haien eskutik. Bukarera, Irigoienek 100 kiloko borobila eskutan hartu eta plazari buelta eman zion, ixkiña bakoitzean altxaera bat eginez. Azkenik, bere Belauntzako amonari azken altxaldia eskaini zion.

Trikitilariak arratsalde osoan zehar izan ziren plazako giroa alaitzen, 21:00ak arte, gutxi gorabehera. Mendiluze eta Peñagarikano bertsolariak herri kirolen inguruan eta laister aita izango den Mendiluzeri buruz ere aritu ziren. Ondoren, jatetxean bertan afaltzen gertatu ziren 80 bat lagun.

## Zaldi lasterketa

Asteasun ere giroaz ezin kexatu, kalean ibiltzeko aproposa baitzegoen, batez ere arratsaldean, zaldi karrerarako. Hala esan zuen antolatzen aritzen den Iñaki Izagirre asteasuarrak —lasterketan hirugarren egin zuen—: «Giroa oso ona izan zen, eta zaldi lasterketa egiteko ere aproposa zegoen».

Igandeko irabazlea Josu Kastañares izan zen, eta bigarren Xabi Telleria lasartearra. Guztira 13 zaldi lasterkari aritu ziren, eta 6 ziren eskualdekoak. Bi kilometroko karrera da, 400 metroko bira bost aldiz eginez. Datorren urtean zortzigarrena izango da eta «berri antolatzeko asmoa» dute.



Mari Jose Sardonen altxaldia, harri-jasotze probaren baitan. Jende asko bildu zen Santa Marinan. ESTI EZEIZA



Askok ikusi zuten zaldi karrera: bi kilometro egin zituzten zaldiek, zirkuito itxian. ANDER OTEZABAL



Josu Kastañares zaldi lasterketako irabazlea, eta Xabi Telleria. A. O.

## ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347  
Beotibar Industriegunea, 18 • BELAUNTZA

## AMEZKETA ▶

### Eskualdeko hiruek galdu dute pilota txapelketan

Ez da asteburu ona izan eskualdeko pilotarientzat XIX. Joxean Tolosa Pilota Txapelketari dagokionez. Hiru ziren jokalariek: Zelaia seniorra, Urruzola alkizarra eta Jauregi kadete anoetarra. Urruzolak sei tanto egin zituen Etxeberria altsasuarraren aurka. Jauregik beste hainbeste egin zituen Aiestaranen kontra. Beraz, nafarrak nagusitu ziren eskualdekoen aurrean.

## GIZARTEA ▶

### Bi atxilotu alkohola edanda gidatzeagatik

Euskal Autonomia Erkidegoan 16 pertsona atxilotu dituzte asteburu honetan edari alkoholodunen eraginpean gidatzeagatik, ertzaintzak jakinarazi duenez. Horietatik bat Tolosan atxilotu zuten pasa den larunbatean eta beste bat herenegun, Ibarrran.

## VILLABONA ▶

### Garagardo Azokako zozketan 2.606 zenbakia

Villabonako Garagardo Azokaren zozketan 2.606. zenbakia izan da saritua. Saria Barcelo Bidaiak eta Irrintzi elkarteak eskainitako bi lagunentzako Tenerifera bidaiak da. Zozketan parte hartu ahal zen pitxerra erosterakotan antolatzaileek ematen zuten txartelarekin.

55 Eperako Aurrezkia

Uda honetan, Super 55 puntuak eskaintzen ditugu eperako ezarpenetan



55 Eperako Aurrezkiaren ezaugarriak

- Epe finkorako ezarpena, **urtebeterako**.
- **Hilean** behingo interesen likidazioa.
- % **3,90**eko interes nominala urtean.
- % **3,97 UTB**
- Gutxieneko zenbatekoa: 10.000€

CAJA LABORAL  
ELUSKADIKO KUTXA

EUSKAL HERRIKO SEGALARI TXAPELKETA ▶

# Jon Lapazaran bizkaitarra eskualdeko hiru segalarien gaineratik ibili zen Pikoketan

Jexuxmari Ormaetxea 'Urki' izan zen lehena sailetan, baina kilotan Lapazaran bizkaitarra nagusitu zen, 'Urki', Gabirondo eta Goikoetxearen aurretik



Joxe Gabirondo, Andoni Goikoetxea, Jon Lapazaran eta 'Urki' finaleko une batean. A. IMAZ

## ASIER IMAZ

Oiartzungo (Gipuzkoa) Pikoketako zelaietan, Euskal Herriko Segalari Txapelketa jokatu zuten herenegun eguerdian.

Lau finalistetatik hiru eskualdekoak baziren ere, Andoni Goikoetxea eta Joxe Gabirondo gazteluarrak eta Jexuxmari Ormaetxea *Urki* orendaindarrak, txapela Jon Lapazaran bizkaitarrak eraman zuten Markinara. «Txapela nire gurasoei eskaini nahi diet, aita eta amari, etxean sufritzen egongo dira eta». Hauek izan ziren azken

emaitza jakitean markinarraren hitzak.

Lapazaranek 3.849 kilo bera moztu zituen ordubeteko lanean, lehena geratzeaz gain, Euskal Herriko 3. txapela lortu zuelarik, lehen biak 1997 eta 2002an irabazi baitzituen. Aurten Bizkaiko Txapelketa ere irabazi du Jon Lapazaranek; hau guztia denboraldi batean txapelketa ofizialetatik kanpo egon ondoren lortu du markinarrak. 40 urterekin sasoiko dagoela erakutsi duen arren, «agur esateko garaia» iritsi zaiola aitortu zuen Oiartzuneko

txapela buruan zuela; «koadri-lakoak berriz etortzeko prest egongo lirateke baina oraingoko amaitu dela uste dut».

## Eskualdeko 3 segalari

Eskualdeko hiru segalari iritsi ziren finalera, baina ezin izan zuten Lapazaran gaindutu. Bigarren Jexuxmari Ormaetxea *Urki* geratu zen 3.743 kilo moztu ondoren. Hirugarren Joxe Gabirondo 3.647,5 kilorekin eta laugarren Andoni Goikoetxea 3.539,5 kilorekin. *Urki*, itxura oso ona eman zuen; or-

dubeteko lanean bera izan zelarik sail gehien moztu zituena. 32 urteko orendaindarrak zazpi-garren sailera heldu zen eta aurkariak 6.an amaitu zituzten lanak. Hau ikusirik, Pikoketan elkartutako ikusle eta segalariak, emaitza jakin aurretik *Urki* jotzen zuten garaile, nahiz eta bi txartel gorriren ondoren, 40 kilotako penalizazioa izan. Gabirondo ere uste horretakoa zen, «belardia nola zegoen ikusita, nahiko ustekabea izan da, *Urki* sailetan besteoi alde handia atera baitigu». Azkenean, nahiz eta bigarren egin, gustura agertu zen Ormaetxea, «lehen sailetik aurrean ibili naiz eta azkenean hiru maila gubxiago moztu ditu Lapazaranek, baina berak bajutik heldu dio belarrari. Hala ere, gaur nire lana egin dut eta gustura sentitzen naiz bigarren postuarekin. Oso libre eta gustura ibili naiz segan».

Lurraren gaineratik belarra mozteak garrantzia izan zuen herenegun, izan ere, «saio hasieran belarra ikustean behelaldean bustia eta pisua zuela ikusi genuen. Ondorioz, behelatik mozteak erabakia hartu genuen. Gero erritimoari eutsi egin diotela uste dut hasieratik amaieraraino». Txapelkun finaleko gakoa agerian utzi zuen amaieran esandako hitzetan. Joxe Gabirondok erritimolari hasieratik bukaeraraino eutsi zion, baina hirugarren postuarekin konformatu beharrean aurkitu zen 46 urteko gazteluarrak. «betekada txiki bat izan dut baino nahiko erregular ibili naiz saio osoan». Az-

## SAILKAPENA ▶

1. Jon Lapazaran	3.849 kilo
2. 'Urki'	3.743 kilo
3. Joxe Gabirondo	3.647,5 kilo
4. Andoni Goikoetxea	3.539,5 kilo

## ERREAKZIOAK ▶

### JON LAPAZARAN

EUSKAL HERRIKO TXAPELDUNA



«Gurasoei eskaintzen diet txapela. Lasai hasi naiz, baina sufrituz bukaeraraino, hori bai, betekadarik gabe».

### 'URKI'

BIGARRENA



«Gaur nire lana egin dut eta gustura nago bigarren postuarekin. Oso libre ibili naiz segan».

### JOXE GABIRONDO

HIRUGARRENA



«Belardia nola zegoen eta *Urki* besteoi sailetan atera digun alde ikusita, nahiko ustekabea izan da».

### ANDONI GOIKOETXEA

LAUGARRENA



«Eguraldi oso ona eta belarra zaila eta pisua zegoen. Ondo hasi naiz, baina lan erdian aurrera oso gogorra egin zait».

ken postuan berriz, Andoni Goikoetxea geratu zen, irabazlearengandik 309 kilotara; 35 urteko gazteluarrak «pena pittin batekin» zegoen, «eguraldia oso ona izan da, belarra zaila eta pisua zegoen. Nik ikusi dut etxetik ateratzerakoan gaur oso zaila izango zela. Ondo hasi naiz baina saio erditik aurrera gogorra egin zait».

## hilberria ▶

### Pablo Argibe Uraola

—Golan bego—

Guretzat zera itsasoa bezain handia eta zabala, horregatik azkenaldian hari begira zinala lasaitasuna islatzen zuen triste balego bezala. Nahiz ta jendeak esango duen haizeak zaramatzala, jakizu Paulo gure bihotzetan beti egongo zerala.

Emaztea, seme-alabak eta bilobak

GETARIA, 2007ko uztailaren 24a



### HILBERRIK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



LEITZA ▶ ERLIJOA

# Santa Krutzen 50 erromes elkartu dira ermita berritzen egindako lana eskertzeko

Jubilatu elkarteak antolatu du erromeria urtero bezala, duela hainbat urte auzolanean zenbait herritarrek Santa Krutz ermita konpondu zutela ospatzeko



Santa Krutzera egindako erromeria, duela bi urte. J. ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Herenegun, urtero bezala eta Jubilatutako elkarteak antolatuta erromeria egin zuten Santa

Krutz ermitara. 13:30ean meza ospakizuna egin zuten arren, 11:00etarako jada jendea goian zen, eta festa arratsaldeko 18:00ak arte luzatu zen.

Gloria Irurtia Jubilatutako elkarte kideak azaldu duenez, 50 lagun inguru bildu ziren. «Herenegun normalean baino gutxiago elkartu ginen, beti josten diren etatik batzuk oporretan baitaude». Aurreko astean ez du apenas eguzkirik egin, baina justu igandean eguraldi polita egin zuen. «Eguraldi zoragarria egin zigu, bazkaltzen oso gustura egondu ginen».

Mezari dagokionez, Irurtiaren ustez «oso meza polita» izandu zen. «Txokoko Lontxo erromeria antolatuz geroztik beti josten zen Santa Krutzera. Horregatik, aurten hil denez, meza berari atera diogu».

Batzuk oinez, beste batzuk mendiko ibilgailuetan, nahi zuten oro Santa Krutzera igor

zen igandean. Egun honetaz gain, ermita honetara jendea urtean bitan igotzen dela adierazi du Irurtiak. «Bi Santa Krutz egun izaten dira, maiatzekoa eta iraillekoa eta jendea apaizarekin igotzen da».

## Txokoko Lontxo

Juan Bautista Irazoki abadea herenegun Santa Krutz ermitan emandako mezaren inguruan mintzatu da. «Ermita hori berritzen Txokoko Lontxok eta beste askok lan handia egin zuten. Ni etorri baino urtebete lehenago egin zuten lan hori, eta ondoren hurrengo urtean egin zuten urtemuga bezala festa bat. Gero hori gelditua egon zen eta jubilatuen artean animatu ginen pixka bat berriz

berreskuratzera, ermita konpontzen egin zuten lan hori eskertzeko». Auzolanean duela hainbeste urte egindako lana eskertzeko, beraz, Jubilatutako elkarteak duela zenbait urte erromeria hau antolatzeko ohitura berreskuratu zuen. «Auzolan horretan denean Txokoko Lorentzo izan zen buru eta bera izandu zen ermitari eutsi ziona, bera izandu zen hango animatzailea eta hango mantentzailea. Horregatik egun horretan hori gogoratzen denez, Lontxo oroitzea ezinbestekoa zen».

## Zainketa lanak

5 urte inguru daramatza Jubilatutako elkarteak erromeria hau antolatzen eta meza gain, ondoren egiten den bazkaria ere hagitx garrantzitsua da. Hone-lan, aldeaz aurretik Jubilatutako elkarteak jakitera ematen duen bezala, bakoitzak bere bazkaria eraman behar du. Halere, erromeria bera ere auzolanean egiten da, neurri handi batean. «Meza 13:30ean izaten da, baina jende asko 11:00etarako han izaten da. Mahaia jarri behar dira, aulkiak...», dio Irurtiak.

Hori bai, edaria, postrea, kafea, kopa eta musika Jubilatutako elkarteak jartzen ditu.

JULIAN IPARRAGIRRE ▶ PILOTAN ADITUA

## «Aurrera Pilota Eskolako pilotariak eta arduradunak oso lan ona egiten ari dira»

Julian Iparragirre ostiralean Amazabalen jokaturako finalurrekoan izan zen

NAIARA GARZIA

Julian Iparragirre (Leitza, 1949) urte asko egin ditu Aurrera Pilota Eskolan eta pilotan aditua da.

**Jende asko bildu zen Euskal Herriko Herri Artekoaren finalurrekoan ikustera.**

Bai, sarrera oso ona izandu zen eta frontoiak oso itxura ona zeukan.

**Finalurreko partidak zer irudituko zitzaizkizun?**

Oso politik izan ziren. Kadete mailako bikoteari dagokionez, hemengo oso bikote polita da, eta hangoa ere maila politikoko bikotea da. Hasiieran nahiko justu ibili ziren, 12-10 ere galitzen joan ziren, baina gero Jaunarenak bigarren zati oso ona egin zuten, eta nahiko ongi irabazi zuten. Maila handiko partidak izan zen gazteak direla kon-tuan hartuta.

**Gazteen mailakoa, aldiz, galdu egin zuten, 22-15eko emaitzarekin.**

Bigarren partidak, gazteen mailakoa, Alduntzinek eta Goikoetxeak oso partida txukuna egin zuten, biak pilotari politikak eta txukunak baitira. Galdu egin zuten, baina Alduntzinek txapelketa osoan jokatu duen partidari hobere-na jokatu zuen. Oso ongi jokatu zuen. Goikoetxeak egin ditu ostiralean baino partida hobeak. Ez zuen zorzte gehiegi izan, pilota batzuek gora alde egin zioten, besteren bat ere bazterrera joan zitzaion, baina galdu arren, maila polita erakutsi zuten.

**Iriartek eta Olazabalek irabazi egin zuten.**

Helduen artean, Olazabalek eta Iriartek oso bikote ona osatzen dute. Esan behar da Olazabal lesio batetik atera

berria dela eta bere jokorik hoberena hartzea kostatzen ari zaio, baina oso ongi jokatu zuen. Pixkanaka-pixkanaka gora doan pilotaria da Olazabal, eta txapelketa osoan zehar maila ona ematen ari da. Iriartek ere oso ongi jokatu zuen. Hauak nahiko erraz irabazi zuten, 22-12. Orain ikusi egin behar da hurrengo larunbatean Arrasateko finalean ea berriro ere maila ona ematen duten eta irabazteko aukera duten.

**Tanto politik ere ikusi ahal izan ziren, ezta?**

Bai, dudarik gabe. Batik bat tanto politik aurreko koadroetan baino gehiago esango nuke Jaunarenarekin ikusi genituela. Jaunarenak pilotakada ikaragarriak eman zituen, pilota bat errebotera ere sartu zuten eta txalorik gehienak berak eraman zituen. Maila ho-

rretan gehien nabarmentzen den pilotaria da.

**Larunbateko finala nola ikusteko duzu?**

Nik egia esan itxaropena badaukat. Jaunarenak eta Aramburuk lehenengo partida irabazi egin behar lukeketa pentsatzen dut. Hango bikotea ere nahiko polita da, baina halere normal joanez gero, lehenengo partida Leitza irabazi behar luke. Gazteen mailan, ziurrenik galtzea tokatuko da, eta azkeneko partidak bai Olazabalek eta bai Iriartek beraien maila ematen badute

partida aurrera atera dezaketela pentsatzen dut. Ea zorzte pixka batekin txapela Leitza etortzen den.

**Zer garrantzi dauka Leitza pilotari eskolarentzat Nafarroako Herri Artekoaren irabazteak, eta Euskal Herriko finalera iristeak?**

Nik urte asko egin ditut Leitza pilotari eskolan eta garrantzi ikaragarria du, oso gutxitan gertatzen da pilota eskola batean maila oneko lau bikote izatea. Nafarroko txapeladun atezatzeko lau bikote behar dira nahiko maila onekoak, eta aurreko zorzte hori izandu da. Garrantzi ikaragarria du niretzatkeko lau bikote behar dira sari ikaragarria da. Aurrerako Pilota Eskolako pilotariak eta arduradunak oso lan ona egiten ari dira. ◀

**ondo pasa!**  
Ernio-bea 3  
Billabona  
Tel.: 943 69 33 75

**ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko uztailaren 24a, asteartea ▶ V. urtea**

GAURKO EGURALDIA	goizez		arratsaldez		beroena	<b>21</b>	hotzera	<b>15</b>	BIHARKO EGURALDIA	goizez		arratsaldez		<b>HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA</b> <small>(zalantzarik argitzeko, harpidedun egileko...)</small>	<b>902 82 02 01</b>
------------------	--------	--	-------------	--	---------	-----------	---------	-----------	-------------------	--------	--	-------------	--	---	---------------------

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Urtero bezala zikirojatea izango da Altzoko jaietan, hilaren 30ean. 20 eurotan daude salgai, eta 200 lagunendako lekua dago. Txartelak lehenbailehen erostea eskertu dute antolatzaileek. Arandia jatebtxean eros daitezke.

**Villabona.** Santio jaien baitan gaurko egitaraua: 17:00etan, Pilota Behar Zana elkarteak antolatuta, eskuz binaka herriko txapelketaren finalak Olaederra kiroldegiko frontoian; 17:45ean, Frontenis Behar Zana elkartearen eskutik, herriko txapelketaren finalak Olaederra kiroldegiko frontoian; 18:30ean, Lubaki batukada plazan; 19:00etan, kanpai errepika eta txupinazoa plazan Eresargi Txikiren eskutik; 21:00etan afari herrikoia plazan, Lubaki batukada taldeak alaituta; 23:00etan, dantzaldia plazan, Nekin taldearekin; 23:00etan herriko gazteek antolaturiko danborrada, Gurea antzokitik abiatuta; 01:00etan, dantzaldia plazan, Nekin taldearekin. Euren azken kontzertua da.

**ERAKUSKETAK**

**Zizurkil.** Street Art ikastaroan parte hartu duten gazteen skate taulen erakusketa Atxulondo kultur etxean. Atzo inauguratu zuten, eta bihurtik 27ra (ostirala) izango da ikusgai 16:00etatik 19:30era.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
 Tolosa. Olarreaga, J. korreo kalea, 2. 943 670128.

**IRRATIA**

**Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).  
 20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.  
 21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



**Azkarrak eta Astapistols A taldeak irabazle Bonberenean**

**TOLOSA** ▶ Pasa den larunbatean Bonberenean II. Futbito Txapelketaren finalak jokatu zituzten, astebete lehenago lehen partidak jokatu zituztelarik. Guztira 14 talde aritu ziren, 8 helduetan eta 6 gazteetan. Lehengoan mailan, Azkarrak taldeak irabazi zuten eta Bonberenea taldea bigarren geratu zen. Urrezko bota Ramon Ar-

tetek eraman zuen. Gazteen mailan, berriz, Astapistols A taldeak eskuratu zuten lehen postua eta bigarren postua Aita Noel talderentzat izan zen. Maila honetan ere banatu zuten urrezko bota. Axier Mugikarentzat izan zelarik. Urrezko guantea, aldiz, Igor Agirerentzat izan zen. ASIER IMAZ

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza** agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**EUSKAL JAIA**  
**Billabona**

Uztailak **28**  
 Larunbata

Billabonako Plazan

*"salto eta jauzi, euskaraz bizi!"*

18:00etan Sagardo dastaketa pintxoan laguntzarekin Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak alaiturik  
 19:30etan BERTSOLARIAK: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso  
 20:00etan ERROMERIA: Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak  
 21:00etan Afari herrikoia plazan: **Zikiro Jana**  
 00:00etan ERROMERIA: Patxi eta Konpania

**Garaiko euskal jantziekin parte hartzera animatzen zaituztegu**  
**Zikiro janerako txartelak salgai: 20€**